


2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.
Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.

Testua. TEXTO.

PUBLIZITATEA 31
2009KO URTAILAREN 11 EGITURA



Enplegu bila bazabiltza ...
Si buscas empleo ...

Lanbidek erakutsiko dizu bidea
Lanbide te muestra el camino

Plan de empleo
2007 - 2010
Enplegu-plana



Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak arreta pertsonalizatua eta kalitatezkoa eskaintzen dizu, lana lortzeko dituzun aukerak hobetzeko.

"Lana bilatzeko Plan Pertsonala" zuretzat, behar dituzun zerbitzu guztiak bilduta: Orientazioa, Prestakuntza, Lana bilatzeko teknikak, enpresetan praktikak egiteko programak, eta lan-merkatuko bitartekaritza zure profilarik gehien egokitzen zaizkion lan-eskaintzak eskuratzeko aukera eta guzti.

Lanbidek bere zerbitzu profesional guztiak zure esku jartzen ditu, bere bulego eta zentro laguntzaileen bitartez.

Lanbiden enplegu egonkorra eta kalitatezkoa lortzeko laguntza eman nahi dugu.

Pertsonak axola zaizkigu.

► lanbide Zure Plan Pertsonala
lana bilatzeko

► lanbide Tu Plan Personal de
búsqueda de empleo

► Lanbide Servicio Vasco de Empleo te ofrece una atención personalizada y de calidad, para mejorar tus oportunidades de conseguir un empleo.

Tu "Plan Personal de búsqueda de empleo" con todos los servicios que necesites: Orientación, Formación, Técnicas de búsqueda de empleo, programas de prácticas en empresas, e intermediación en el mercado de trabajo con acceso a las ofertas de empleo más adecuadas a tu perfil.

Lanbide pone a tu disposición todos sus servicios profesionales a través de sus oficinas y centros colaboradores.

Desde Lanbide queremos contribuir a lograr el pleno empleo estable y de calidad.

Nos importan las personas.

Informazioa - Información:
Tel./ 901 222 901 www.lanbide.net



Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



EUSKO JAURLANITZA
AJUDA LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE ASISTENCIA
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL



ERANTZULEKUNTZA
LABORAL SAILA
EMPLEO

GAIA/ASIGNATURA	Euskara eta Euskal Literatura
MAILA/CURSO	DBH 4
IKASTETXEA/CENTRO	Toki Ona BHI (Bera)
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	Euskara eta Euskal Literatura
IRAKASLEA/PROFESOR / A	Enkarni Peña, Gorka Mercero eta Axun Almandoz
JATORRIA/FUENTE	
EGILEA/AUTOR	Euskal Enplegu Zerbitzua (Eusko Jaurlaritza:Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila)
IZENBURUA/TÍTULO	Enplegu bila bazabiltza...Lanbidek erakutsiko dizu bidea.
ARGITALETXEA/EDITORIAL	Berria
URTEA/AÑO	2009-01-11
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	31.a
ISBN	
TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA	
OINARRIA/SOPORTE	Inprimatutako testua
FORMATOA/FORMATO	Mistoa
MOTA/TIPO	Argudiozkoa
ERABILERA/USO	Komunikabideak
ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA	
IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Irakurketa helburuak <ul style="list-style-type: none"> • Testuak dakarren informazioa egoki ulertu eta eskuratzea. • Idatzizko publizitateak darabiltzan estrategia batzuei antzematea. 2. Komunikazio-egoera argitzea, bere elementu nagusien <i>forma</i> analizatuz, lehen begirada batean hauteman daitekeena seinalatuz. Modu horretara, <u>beren ezagutza batzuk jada aktibatzen ariko gara</u>. Horretarako, irakasleak honako galdera hauek egingen ditu talde osoaren aitzinean: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Kanala</i>. Edozer baino lehen, testu idatzia da ikus-entzunezko testuetatik bereizi beharrekoa. Orain, nondik hartu ote da testu idatzi hau? Liburu batetik? Aldizkari batetik? Postontzitik? Kaleko kartel bat ote da? <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Egunkari batetik harturiko testua dela argitu behar dugu denon artean.</i> ○ <i>Mezua</i>. Une honetan, ez gara gehiago edukiaz arduratuko. Kontua da <i>publizitate</i> testua

	<p>dela ohar daitezen. Beraz: zein generotako testua da hau? Izendatua al dago inon generoa?</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Goi eskuinean argi eta garbi dago adierazita: publizitatea.</i> <p>Publizitatearen inguruan duten ezagutza aktibatu ahal dugu orain: zein izaten da publizitate testuen helburua? Adibiderik aipatu ahal duzue azkar batean?</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Kodigoa.</i> Hemen gauza dezentetaz ohartu beharko lirateke, iragarkiak darabiltzan kode ezberdin guztiez, kasu: zein kode darabil iragarkiak? Hizkuntza idatzia bakarrik? Zer horrezaz gain? <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Irudiak aipatu beharko lituzkete.</i> <p>Zein garrantzi dute lehen begirada batean, behintzat, irudi horiek iragarki honetan? Zer funtzio dute? Gogora ezazue egunkari batetik harturiko testua dugula hau.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Hemen irudiaren garrantzia aipatu beharko litzateke, irakurleari atentziora eman eta bere arreta erakartzeko nagusiki idatzizkoa den kanal batean, idatzizko mezua osatu eta argitzeko izan dezakeen funtzioa...</i> <p>Hizkuntzak? Zer diozue hizkuntzez? Zenbat daude? Zergatik? Zein ordenatan agertzen dira mezuak? Zergatik?</p> <p>Azkenik, beste zeinurik bereziki nabarmentzen ote den galdetuko diegu.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Hemen, iragarkian ageri den hiruki pila hori aipa liteke. Hipotesiak ere egin litezke hirukien esanahiaz, baina beren presentziaz ohartaraztea aski liteke une honetan.</i> ○ Igorlea: zein ote da? Zeinek paratu du iragarkia egunkarian? Ba al da zeinurik horren inguruko informaziorik ematen digunik? <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Behealdeko logotipoak-eta aipatu ahal dira hemen.</i> ○ Hartzailea: nor ote da? <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Hipotesi azkarren bat egin liteke une honetan.</i> ○ Erreferentea: zeri buruzkoa da mezua? Beti ere lehen begirada batean, mezuak hizpide duen hori nonbait nabarmendua dagoela iruditzen zaizue? Zein izan daiteke? <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Lanbide.</i> <p>Orain, ze ote da Lanbide? Hipotesiren bat edo beste egin dezakete.</p>
--	---

<p style="text-align: center;">IRAKURRI BITARTEAN/DURANTE LA LECTURA</p>	<p>3. Irakurketa bikoteka edo taldeka egingen dute, hiru pausotan gauzaturik irakasleak emandako oharrei jarraituz eta egindako galderei <u>hipotesien bidez</u> erantzun asmoz.</p> <p>a) Goiko bi irudiei erreparatu: ba al dute irudiek haien arteko loturarik? Zein? Zer esanahi dute? <i>Galderei ez diegu erantzunik emango, haiek beren hipotesiak egin ditzatela.</i></p> <p>b) Bikoteka eginda, gorputz nagusia batek euskaraz eta besteak erderaz irakur lezakete eta gero komunean jarri, honako galdera hauei erantzunez: zer da Lanbide? Zer funtzio dauka? <i>Galderei ez diegu erantzunik emango, haiek beren hipotesiak egin ditzatela.</i></p> <p>c) Behealdeko logotipoak: zer esan nahi dute? Zergatik ageri dira Eusko Jaurlaritza eta Europar Batasunaren logotipoak? <i>Galderei ez diegu erantzunik emango, haiek beren hipotesiak egin ditzatela.</i></p>
<p style="text-align: center;">IRAKURRI ONDOREN/DESPUÉS DE LA LECTURA</p>	<p>4. Aurretik eginiko hipotesiak egiaztatzeko garaia da orain. Funtsean, edukiari buruzko eta publizitate-generoari buruzko galdera funtsezko batzuk argitzen saiatuko gara.</p> <p>a) Ze publizitate-mota da hau? Zer edo zer saldu nahi digute? Enpresa batek eginikoa da? Zeinek orduan? Ze helburu du iragarkiak, ze erantzun jaso nahi dute irakurlearengandik?</p> <p>b) Irudiek, orduan, lotura dute testu idatziarekin?</p> <p>c) Hirukiek ze esanahi dute, orduan, testua osorik irakurri dugularik?</p> <p>5) Bukatzeko, azkar-azkar zerrendatuko dira denen artean publizitate idatziak darabiltzan baliabide guztiak eta beren garrantzi eta funtzioa seinalatu: iragarkiaren tamaina, koloreak, irudiak, tipografia, ikurrak, diseinua...</p>
<p>JARDUERAK/PROCESOS LECTORES</p>	

Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	1. Zer da <i>Lanbide</i> ? a) Lana eskaintzeko erakundea b) Lana bilatzeko orientazioa, teknikak eta prestakuntza eskaintzen duen zerbitzua. c) Enplegua nola lortu adierazten dizun erakundea. d) Europako elkartea.
	Erantzuna Respuesta	b) Lana bilatzeko orientazioa, teknikak eta prestakuntza eskaintzen duen zerbitzua.
	2.	2. <i>Lanbidera</i> joz gero, zure ezaugarriei (egindako ikasketak, izandako lan-esperientzia eta abar) egokituriko arreta eskainiko lizukete? Bai ala ez? Erakutsi testuko informazioa aipatuz.
	Erantzuna Respuesta	“ <i>Lana bilatzeko Plan Pertsonala</i> ” zuretzat, behar dituzun zerbitzu guztiak bilduta: Orientazioa, Prestakuntza, Lana bilatzeko teknikak, enpresetan praktikak egiteko programak, eta lan-merkatuko bitartekaritza zure profilari gehien egokitzen zaizkion lan-eskaintzak eskuratzeko aukera eta guzti.
Ulermen orokorra COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	3. Zein hartzaile motari dago zuzenduta?
	Erantzuna Respuesta	-Lan bila dabilenari.
	2.	4. Zein da iragarki honen bidez zabaldu nahi duten mezu nagusia?
	Erantzuna Respuesta	-Lanbidek lana bilatzen lagunduko dizula.
Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	5. Iragarki honetako eslogan nagusia da... a) Zure Plan Pertsonala lana bilatzeko. b) Enplegu bila bazabiltza, <i>Lanbidek</i> erakutsiko dizu bidea. c) Pertsonak axola zaizkigu. d) <i>Lanbide</i> .
	Erantzuna Respuesta	b) Enplegu bila bazabiltza, <i>Lanbidek</i> erakutsiko dizu bidea.
	2.	6. Zer esanahi dute labirintoak eta trafikoko seinaleak?
	Erantzuna Respuesta	Labirintoa: irteera garbirik gabeko arazo edo egoera, hau da, langabezia. Trafikoko seinalea: bidea argi erakusten duen seinalea da <i>Lanbide</i> .
Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	7. Baikorra ala ezkorra da iragarkia langabeziaren aurrean? Zure erantzuna arrazoitu.
	Erantzuna Respuesta	-Baikorra. Langabezia konponbidea duen arazo moduan planteatzen duelako.
	2.	8. Zer pentsa daiteke iragarkiak egunkari orrialde osoa hartzen duela ikusita? Zergatik hain iragarki handia?

	Erantzuna Respuesta	- Erakunde ofizialak egindako iragarkia delako. Bestalde, langabezia tasa handitzen ari den garaian argitaratu da (krisi garaian) eta irakurlea erakartzeko premia ere handiagoa izan daiteke.
Formaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN - FORMA	1.	9. Iragarkiak irakurlea komentzitu egin nahi du. Horretarako hurbiltasuna behar du. Lortzen al du hurbiltasun hori? Non ikusten duzu?
	Erantzuna Respuesta	-Bigarren pertsonaren erabileran.Horretaz gain, argazkietako pertsonen janzkera, estiloa,...e.a. irakurlearenganako hurbiltasun handiagoa lortzeko hautatu dira.
	2.	10. Zer baliabide erretoriko azaltzen dira iragarki honetan? Metaforak, konparaketak, aliterazioak, ironia, hiperboleak, elipsiak...e.a.
	Erantzuna Respuesta	<ul style="list-style-type: none"> •Metaforak: labirintoa, trafiko seinalea. •Aliterazioak: “zure esku”, “zuretzat”, “zure plan...”, “lortzeko”, “hobetzeko”, “bilatzeko”, “egiteko”, “eskuratzeko”. •Hiperbolea: “Zure plan pertsonala”, “behar dituzun zerbitzu guztiak bilduta”, “zure profilari gehien egokitzen zaizkion...”, “bere zerbitzu profesional guztiak zure esku ...” •Elipsia: “Lan bila bazabiltza (...),... •Hitz jokoak: “Lanbidek erakutsiko dizu bidea”. •Esaldi indartsuak: “Pertsonak axola zaizkigu”, “Lanbidek erakutsiko dizu bidea”.
PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA – OHARRAK OBSERVACIONES		